



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

ALKARTE ABEGITSUAK

ESPERIENTZIEN MAHAIA

SENIDETASUNA MUNDU OSORAKO
SENIDETASUNA LANEAN
SENIDETASUNA GURE GERTUKO INGURUAN



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO

«ADISKIDE ETA SENIDE, COMUNIDADES ACOGEDORAS»

LAGUNGARRIAK ESPERIENTZIEN MAHAIAN SAKONTZEKO

A HAINBAT ESPERIENTZIA ETA IKASKUNTZA



BEGIRADA MUNDUARI, IPAR-HEGOARI

- Aurrea hartu behar dogu eta beste leku eta kultura batzuetako gure anai eta arriben bila atera.
- Misiolari konpromisoak gure eleiz eta gizarte errealidadea aldatu egiten dau.
- Alkarte abegitsuak maitasuna, zuzentasuna, barne hartzea, konfiantza eta konpromisoa eskaintzen dau.
- Harrera egitea, jarrera da, aberastu egiten dauan bategitea.



BEGIRADA LANARI

- Lan duina izateko eskubidea bermatzeak izan beharko leuko beti helburu nagusia (FT 162).
- Lanak, sarrerak baino askoz gehiago emoten deutse pertsoneri: osotasuna maila pertsonalean, familian eta gizartean, autormena, hartu-emon pertsonalak, autoestimua.
- Lanbidea, lana izatea baino askoz gehiago da, segurtasuna, konfiantza, independentzia eta etorkizuna emoten ditu.
- Kristau alkarateek gizalegezko lanaren, lan barneratzailearen eta ekonomia solidarioaren alde egin beharko leukie.



BEGIRADA GERTUTIK, LEKUAN LEKUTIK

- Gure alkarateetara iristen diran etorkinek atak itxita aurkitzen dabez. Hori dala-eta, ikusezin dirala sentitzen dabe.
- Pertsona nagusiak bakarrik sentitzen dira eta zailtasunak dabez alkarate bizitzan parte hartzeko, pandemia aldi honetan.
- Zelan erantzun egoera honeei? "Ateak zabalik" dituan alkarate izanda:
 - Pertsonengana hurreratu.
 - Bat egiteko eta alkar ezagutzeko eremuak sortuko dabezan deialdiak egin.
 - Besteei entzuteko eta alkar entzuteko, bizitza adierazteko eta batera jarteko, negar eta barre egiteko eremuak sortu.

B HAINBAT ERRONKA ETA KONPROMISO



BEGIRADA MUNDUARI, IPAR-HEGOARI

- Heziketa-eremuak antolatu, munduari Ipar-Hegoaren, desbardintasunaren arrazoiak eta errealidade horregaz konprometitzeko aukeren ikuspuntutik begiratu ahal izateko.
- Konpromisozko esperientziak helarazi eta lekuko izan.
- Beste alkarte batzuen harrera onartu, euren aberastasuna ezagutu eta munduari beste ikuspuntu batetik begiratzen ikasi.



BEGIRADA LANARI

- Zirkuluak egin, alkartasunezko eta alkarri laguntzeko sareak eratu auzoan eta alkartean.
- Lana bilatzeko eta lanean hasteko bideak dakarrezan egitasmoetan konprometituko diran pertsonen boluntario lana sustatu.
- Ekonomia solidarioko, gizarteratze-enpresetako ondasun eta zerbitzuak sustatu eta kontsumitu.



BEGIRADA GERTUTIK, LEKUAN LEKUTIK

- Bidea beste batzuekin batera egin, automatismo eta erosotasunean ez jausi.
- Alkarte osoa konprometitu.
- Pertsona guztien partaidetza, entzutean oinarritutako harrera eta batera eta alkarlanean eratutako konpromisoa bultzatu.

C JAINKOAREN HITZAZ BALIATUZ...



“Ze gose nintzan, eta jaten emon zeunsten; egarri, eta edaten emon, arrotz, eta etxean hartu ninduzuen; biluzik nengoan, eta jantzi egin ninduzuen, gaixorik, eta bisitatu; espetxean, eta ikustera etorri zinien”.

MT 25, 35 -36

D FRANTZISKO AITA SANTUAREN HITZEZ BALIATUZ...



“Bizitzea egokitu jakun aldi honetan, gizon eta emakume bakotxaren duintasuna autortuz, danon artean, mundu osoan senidetasun-egarria biztu daigula irrikatzen dot. Danon artean: Horra hor sekretu ederra amets egiteko eta gure bizitza abentura paregabe bihurtzeko. Inork ezin dau bizitza bakarka borrokatu [...] Ezinbestekoa da eutsiko gaituan alkarte, alkarri aurrera begiratzen lagunduko deusagun alkarte. Bai garrantzitsua dala alkarregaz amets egitea! [...] Bakarrik joan ezker, ameskeriak izan daikeguz eta ez dagoena ikusi; ametsak alkarregaz eraiki behar doguz”.

FT 8



“Amets egin”, Frantzisko Aita Santua. La Habana 2015eko urria.

**BIDEA IKUSTEKO,
KLIKATU IRUDIAN**

E ALKARTE ABEGITSU GARALA AMETS EGIN DAIGUN



**ZER ESANGO
NEUKE AITA
SANTUAK AMETS
EGITEAZ
DINOANAZ?**



**ZE EZAUGARRI
IZANGO LEUKE
ALKARTE
ABEGITSUAK?**




**ZE EKINTZA
JARRIKO GEUNKE
MARTXAN?**

F OTOITZA



Nil Molinerren “Tal vez” entzungo dogu.



**ENTZUTEKO,
KLIKATU IRUDIAN**



Danok batera esango dogu...

Jauna, gizadiaren Aita,
gizon eta emakume guztiak duintasun beraz sortu zenduzana,
isuri gure bihotzetara senide-sena.

Argitu gaizuz, bategite, alkarrizketa, zuzentasun eta bakea amestu daiguzan.

Adoretu gaizuz, gizarte sanoagoak eta mundu duinagoa sortu daiguzan,
hau da, gose, pobretasun, indarkeria eta gerra bako gizarte eta mundua.

Gure bihotza lurreko herri eta herrialde guztietara zabaldu daitela,
horreetako bakotxean erein zenduan ona eta edertasuna autortu daigun,
batasunezko, baterako egitasmo eta itxaropenezko
lokarriak estutu daiguzan.

FRATELLI TUTTI